

BALOREZKO PROPOSAMENAK

Emakume asko dira konturatu gabe beraien gorputzei toxiko ugari sartzen ari direnak, tanpoien eta konpresen erabileraren ondorioz. Produktu horiek toxiko ugari dituzte emakumearen gorputzean eragiten dutenak: kloroa, rayon, dioxin, aditiboak... Gure helburua emakume horiei laguntzea da, beraien osasuna zainduz.

Gure tanpoia nobedade handia da emakumeen hilekoaren baliabideentzat. Oso tanpoi gutxi dira biodegradableak gure herrialdean, gainera emakume gehienek ez dituzte gauza berriak probatu nahi beldur direlako eta gustura daudelako betiko produktuekin. Guk hori aldatu nahi dugu, emakumeei beraien hilerokorako produktuak aukeratzeko aukera eman nahi diegu, beraien hilekoa askatasunez bizitzeko.

Tanpoi arruntekin alderatuta, guk, bi alboetan hari bana jarriko dugu erabiliko dugun esponja berrerabilgarrian, azpian bakarrik bat bihurtzen dena. Hura erabiltzeko, behin-behineko aplikadoreak erabiliko ditugu, naturarekin jasangarriak direnak, biodegradagarriak. Horrez gain, gure esponjak ez ditu metileno, hexano edo bestelako produktu kimiko kaltegarriak; hortaz, honek ez du osasuna kaltetzen. Horren harira, esponja garbitu beharra dagoenean, urarekin garbitu beharko da, xaboiak dituzten bestelako substantziak esponjan itsatsita ez gelditzeko.



Bi pack mota ekoiztuko ditugu. Batean, bost aplikadore datoz eta esponja bat, 16.99 euroko prezioarekin. Berriz, bestean, 20 aplikadore etorriko dira, 13.99 euroko prezioa izango dutena. Internet bidezko sarbidea irekiko dugu gure webgunean produktuaren informazioa eta datu esanguratsuenak azaltzeko. Honen bidez, gure bezero kopurua handituko dugu eta hauek informatu nahiz kontzientziatzea lortuko dugu, salmentak igoz.